



ANDER LIPUS MAITE AGIRRE



**DIRECCION
GARBI LOSADA**
SECANDO CHARCOS

Secando charcos / Putzuak lehortzen

ANDOL UAK L

PUTZUAK LEHORTZEN
SECANDO CHARCOS



REPARTO
ANDER LIPUS
MAITE AGIRRE

JOSEBA USABIAGA
INES M. DE ITURRATE

BANAKETA



DIRECCIÓN
GARBI LOSADA
ZUZENDARIA



ANTZEZLANA



Badiote, hotza edo beroa sentitzen dituzula jakiten den bezala, sentitzen duzu ere zure maitea dela zure patua. Eta, orduan, betirako da. Zeure buruari traizio egin ahal diozu eta zu traizionatua izan. Zure patutik urrundu zinezke. Urrutira joan zinezke, baita munduaren azken muturreraino. Baita berriro maitatu ere. Baina pasio hori betirako da. Zure patua da. Baina, maitatu daiteke maitasunaren ostean? Hala diote.

Zer egingo dugu maitasuna bukatzean?

- Elkarmaitatzen jarraitu .



Secando charcos / Putzuak lehortzen

Nonbait, beldurra eta sexuaren artean pasioa dago

PUTZUAK LEHORTZEN
amodioz mintzo den ikuskizun bat da. Protagonistarentzat, Ramonarentzat alegia, amodioa eta bizitza gauza bera dira. Hau da, maitatzea, bizitzea erabakitzen duzun unea da, eta une hartantxe berreskuratzen duzu askatasuna, hots, zoriontasuna. Horregatik eskatzen dio Ramoni ausarta izateko eta gaztaroan izan zuten ametsa elkarrekin berreskuratzeko, sekulan ukorik ez egin beharreko ametsa hain zuzen ere...



Secando charcos / Putzuak lehortzen

ANTZEZLANA PRESTATZEN

Bihotza uzteko prest dauden aktoreak, ilusioz betetako taldea, eta sortzeko askatasuna...

“Niretzat baliagarri izateko, emozioa egon behar da, zuk aktore bezela ez badidazu emoziorik helarazten, niretzat ez da interesgarria...”

Garbi losada

“Emozionatu eta nigarrez hasten banaiz, ez naiz inoiz geldituko...”

Ander Lipus



“Iragarritako elkar aurkitze baten kronika da hau... elkarrekin lan egitea gure patua zen...”

Maite Aguirre

Aktoreak

Ander Lipus Euskal antzerkian oso ibilbide emankorreko sortzailea da Ander Lipus. Baita teatroaren bidailari nekaezina. Eta Maite bezala, nazioarteko jaialdietan sarritan parte hartzen duena. Ahalmen handiko aktorea da eta kezka handiak dituen artista. Urteetan zehar, ikuskizun berri, original eta, batez ere, arriskutsuak ikertu eta proposatzen ditu. Bi aktore hauek euskal kulturarekin inplikazioa duen teatroaren bilakuntzan murgilduta daude, beti ere nazioarteko abangoardiak erreferente bezala izanik.

Maite Agirre teatroan ari da lanean 1973. urtean DAGOLL DAGOM talde kataluniarra sortu zuenetik Joan Ollekin batera. Aktore bezala egin dituen lanek, *Zergatik panpox?* A. Urretabizkaiarena, *Molly Bloom* Joyce-ren *Ulises* lanean oinarritua edo Marie Darrieseucq-en *Txerrikeriak*, txalo andiak jaso dituzte ikusle, kritika eta zenbait lehiaketetako epai mahaiengandik. Eta gainera, berak idatzitako lanak argitaratu eta estreinatu ditu, 2007 eta 2008 urteetan MAX saria eskuratuz.



ZUZENDARIA- *Garbi Losada: berak zuzendutako antzerki lanek arrakasta sonatua izan dute, hala nola "Las mujeres de verdad tienen curvas", "Manolito gafotas" "Como agua para chocolate", eta beste hainbat lanek. Ainhoa Pinedak euskeratu egin du.*



Secando charcos / Putzuak lehortzen



Musika giroa

Zuzeneko musika, beste plano eskeniko batean, bi gazteek jotzen dute protagonisten gaztaroa adieraziz. Ines M. de Iturrate eta Joseba Usabiaga, edo Erik Probanza, dira antzezlanaren zati poetiko eta onirikoa musikaz betetzen dutenak.

Plastika eta musika sortzailea : ***Ines M. de Iturrate***

Plastika arteetan, performance-an, dantzan, antzerkian eta musikan esperientzi handikoa, eta arte bizitasunez betea. Antzerki, dantza eta musika ekoizpenak aurkezten dituzten talde desberdinekin ere koprodukzioak egiten diardu. Orain Agerre teatro taldea SL eta Olaf Kehler buru den SIKOKLOUNS KOLLEKTIVE berlindar taldearekin ari da lanean.



Secando charcos / Putzuak lehortzen

Jendea etxetik ateratzen zen lanera joateko...

*RAMON - Orduak eman
genituen diskutitzen, negarrez.*

*RAMONA - Ixiltzen ginenean ur
putzuak begiratzeko genituen,
orban beltzak baliran.*



SECANDO CHARCOS/ PUTZUAK LEHORTZEN

reparto

TALDE ARTISTIKOA/EQUIPO

ZUZENDARITZA/ DIRECCIÓN:
GARBI LOSADA

BANAKETA/ REPARTO:

MAITE AGIRRE

ANDER LIPUS

INÉS MTNEZ. DE ITURRATE

JOSEBA USABIAGA/ ERIK PROBANZA

MUSIKA:
INÉS MTNEZ. DE ITURRATE

ZUZENDARI LAGUNTZAILEA/
AYUDANTE DIRECCIÓN:
AINHOA PINEDA

TALDE TEKNIKOA / EQUIPO TÉCNICO

JANTZIEN DISEINUA/ DISEÑO VESTUARIO:
INÉS MTNEZ. DE ITURRATE

BANATZAILEA/ DISTRIBUCIÓN: **AGERRE TEATROA**
652774407

ESZENOGRAFIAREN DISEINUA/ DISEÑO ESCENOGRAFÍA:
INÉS MTNEZ. DE ITURRATE

ESZENOGRAFIA EGITEA/ REALIZACIÓN ESCENOGRAFÍA:
ESKENITEK

PRODUKZIOA/ **PRODUCCIÓN**: **AGERRE TEATROA**

ATREZZO: **MI CABEZA QUE HABLA**

ARGIEN DISEINUA/ DISEÑO ILUMINACIÓN: **XABIER LOZANO**

ILUMINACION Y FOTOGRAFIA/ ARGIAK ETA ARGAZKIA
DAVID GARCIA

JANTZIAK EGITEA/REALIZACIÓN VESTUARIO:
PILI JAUREGI

Secando charcos / Putzuak lehortzen

Agerre teatroa

Taldea 80. hamarkadan jaio zen. Orduetik hainbat eta hainbat ekoizpen burutu dituzte, euskal kulturako pertsonaia garrantzitsuekin batera: hala nola, Jorge Oteiza, Vicente Amestoy, Koldobika Jauregi, Joseba Tapia ea. Taldearen antzezlanak Euskal Herriko, Espainiako, Italiako, Argentinako, Mozambikeko edo La Habanako eszenatokietan aurkeztu dituzte, baita Lima (Peru) eta Buenaventura eta Buga (Colombia). Peñaforida, Mirande, Atxaga, Beckett, Koltes eta Joyce autoreen lanak jorratu dituzte, besteak beste. Sari anitz jasoaz “Molly Bloom”, “Los niños no pueden hacer nada por los muertos”, “Neska politak, artasoro alaiak” eta “Haur kabareta” antzezlanekin, azken biak MAX saria 2007/2008 urteetan.



Secando charcos / Putzuak lehortzen